



## **EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ESPEZIFIKOEN ORDENANTZA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko modernoan ukazina da dirulaguntzek duten garrantzia, eta beldurrik gabe esan daiteke edozein administrazioen politika sozial eta ekonomikoan erabakigarria den tresna baten aurrean gaudela.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua ematen dizkion lankidetzaren eskumenak dituen lurralde-administrazio gisa, Zarauzko Udalean garrantzi handia du dirulaguntzei buruzko jarduerak.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2023 Lege Orokorrak 17.2. artikuluan esaten du toki-korporazioen dirulaguntzen oinarri arautzaileak aurrekontua gauzatzeko arauen esparruan onartu beharko direla, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate desberdinetarako berariazko ordenantza baten bidez.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorreko jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta, baita, Administrazio Publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozedura bat, interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

Helburua da efikazia eta efizientzia handiagoa lortzeko arau egokiak ezartzea eta, aldi berean, laguntza ekonomiko mota honi izaera publikoak ematen dizkion kontrola eta gardentasuna indartzea.

Bestalde, komenigarria eta beharrezkoa da bere tramitazioan eta justifikazioan irizpide homogeneo batzuk ezartzea, eta, aldi berean, udal departamentuei eta Kontu-hartzailetzari erraztasunak ematea dirulaguntzaren xedea betetzen den frogatzeko egiten dituzten egiaztatze-lanetan.

Udalak onartuta dauka alor hori arautzeko ordenantza orokorra: ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.

Arautegi orokor hori, hala ere, moldatu egin behar da departamentu bakoitzaren helburuetara, bultzatu nahi dituen ekintza zehatzetara, eta horretarako onartzen dira oinarri espezifiko hauek. Horien helburua da norbanakoek eta elkarteek sustatzen dituzten interes orokorreko jarduerak bultzatzea.



## ZARAUZKO UDALA

Ordenantza honek bere helburuak betetzeko behar-beharrezkoa den erregulazioa besterik ez du, eta oinarri espezifiko hauek ordenantza gisa tramitatuz beste urrats bat eman da segurtasun juridikoan, prozedura gardenagoa eta parte-hartzaileagoa delako eta arautegi honen iraunkortasuna bermatu nahi delako.

Ordenantza hau honako xedapen hauek osatzen dute:

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Onuradunak
4. Laguntzak emateko prozedura
5. Izapidea eta ebazpena
6. Diru-zuzkidura eta aurrekontuko partida
7. Onuradunaren betebeharrak
8. Diruz lagun daitezkeen ikastaroak
9. Bete beharreko baldintzak
10. Dirulaguntzak esleitzeko eta neurtzeko irizpideak
11. Aurkeztu beharreko agiriak
12. Bateragarritasuna
13. Dirulaguntzak ordaintzea
14. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea
15. Publizitatea
16. Dirulaguntzak itzultzea
17. Dirua itzultzera behartuak
18. Araudi osagarria

### **1.- HELBURUA**

Ordenantza honen xedea ondorengoa da: ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zarauztar orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Eta hori guztia Zarauzko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen duena kontuan izanik.

### **2.- ESKAERAK**

1. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.
2. Dagozkion inprimakiak osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira deialdian ezarritako epean:
  - Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua)
  - Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.



## ZARAUZKO UDALA

Eskaera formalizatzeko dagokion inprimakia beteko da jarduera edo proiektuaren nondik norakoak zehaztuz.

Eskabidearekin batera, bertan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Eskaerak agiri hauekin batera aurkeztuko dira:

- a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik ([www.zarautz.eus](http://www.zarautz.eus) webgunean).
  - b) Dagokion deialdian adierazitakoa.
  - c) NANaren kopia.
  - d) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena, xedatutakoaren arabera.
3. Eskatzen diren agirietakoren bat Zarauzko Udalaren esku baldin badago, dirulaguntzaren eskatzailea balia daiteke urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.3 artikuluan xedatzen duenez, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.
4. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera egindakotzat joko dela, urriaren 13ko 39/2015 Legeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

### 3.- ONURADUNAK

Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak:

1. Zarautzen erroldatuta dauden pertsonak eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Dirulaguntza hauen onuradun izatera izango du **dirulaguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen** pertsona fisiko edo juridikoak, **edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak.**

**Onuradunak izateko debekua:**

Indarrean dagoen araudiaren arabera eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo entitateek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso. Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ebazpen irmo baten bidez eskubidea galtzeko zigorra jaso dutenek, ebazpenean zehaztutako epean, edo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera, inguruabar hauetako batean dauden entitateak ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun:

- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40 artikulua).

#### **4.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbidez emango dira, eta emateko prozedura Zarauzko Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

#### **5.- EBAZPENA**

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

##### **Organo eskudunak**

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.
- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritz.

##### **Jakinarazpen-epea**

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

#### **6.- DIRU-ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA**



## ZARAUZKO UDALA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Euskara Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

Aurrekontuan izendatutako diru-kopurua nahikoa ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Aldi baten amaieran dagozkion dirulaguntzak eman badira eta eman beharreko gehieneko zenbatekoa agortu ez bada, aplikatu ez den kopurua ondorengo ebazpenetara eramán ahal izango da.

### 7.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Pertsona onuradunaren betebeharrak, eranskinetan jasotakoez gain, hauek dira:

- Euskara Departamentuaren aurrean dirulaguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea.
- Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunak onartu eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- Xede berberarako jasotako dirulaguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.
- Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalarenak egunean dituela egiaztatzea (erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia)

### 8.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN IKASTAROAK

Honako ikastaroak lagunduko dira diruz:

**Euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak:** Aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz barnetegiak.

### 9.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskalduntze- edo alfabetatze ikastaroren bat egin izana.
- Dirulaguntzaren xede den ikastaroak irauten duen bitartean Zarauzko udalerrian erroldatuta egotea.
- Ikastaroan eskainitako orduen % 80 hartzea gutxienez. Hartutako orduen ehunekoa (%) kalkulatzeko, ikasleak ikastaroa noiz hasi duen hartuko da kontuan.

### 10.- DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO ETA NEURTZEKO IRIZPIDEAK

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideok hartuko dira kontuan:

- Euskalduntze- eta alfabetatze ikastaroak:**



## ZARAUZKO UDALA

1. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak ordaindutako matrikularen % 100 izango da bekaren zenbatekoa.
2. Gainerakoak: ordaindutako matrikularen % 75 izango da bekaren zenbatekoa.

### **b) Udan egindako euskara ikastaroak**

1. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezia-txartela duen ikasleak ordaindutako matrikularen %75 izango da bekaren zenbatekoa.
2. Gainerakoak: ikasleak ordaindutako matrikularen %50 izango da bekaren zenbatekoa.

Eskatzaile bakoitzak ikastaro mota bat baino gehiagorako dirulaguntza eska dezake, baina urteko gehienez ere 500,00 euro jaso ahal izango ditu. Baina, ikastaroren bat barnetegian egiten bada, gehienez ere 700,00 euro jaso ditzake.

Barnetegietako ikasleen kasuan, diruz lagundu daitekeen gastua eskola-orduen matrikularen zenbatekoari egokituko zaio; ez da laguntzarik emango mantenu- eta ostatu-gastuetarako.

Gainera, Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, kasu horretan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

## **11.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Eskaera inprimakiarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- a. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- b. Matrikularen ordainagiria.
- c. Euskaltegiaren agiria, eskatzailearen asistentzia (%tan), ikastaroaren ordu teorikoak eta ikasleak gainditutako maila-kopurua adieraziko dituen.
- d. Ikastaroa, Zarauzko euskaltegietatik kanpoko euskaltegiren batean egiten bada, hori horrela egitearen arrazoiak zeintzuk diren azaldu beharko da idatziz. Kanpoan egindako ikastaro berbera Zarautzen egiterik balego, ez da dirulaguntzarik emango.
- e. Langabeen kasuan, "**lan bizitzaren ziurtagiria**" (ikasturteak irauten duen bitartean LANBIDEn izena emanda egon beharko du eskatzaileak).
- f. Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako dirulaguntzei buruzko eta 2. artikularen 2 d) puntuan zehazten den dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatearen inguruko Erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia.
- g. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen Erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia.

Zarauztarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez.

Era berean, Zarauzko Udal Euskaltegiko ikastaroren baterako dirulaguntza eskaria egin dutenen kasuan, Udalak berak egiaztatuko du ikastaroan hartutako orduen ehunekoak euskaltegiko datu-basearen bidez.



Nolanahi ere, eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal izango zaie eskatutako dirulaguntza behar bezala baloratu ahal izateko.

## **12.- BATERAGARRITASUNA:**

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gain-finantzaziorik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagozkion kopurua itzultzeko eskatuz.

Zarauzko Udalak eskubide izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin erkatzeko, beti ere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

Ikasturtean zehar HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek HABEk ikasturte horretan egingo duen dirulaguntza deialdian parte hartu beharko dute. Zarauzko Udalaren dirulaguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da.

## **13.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA**

Laguntzak ordaintzeko aurrez Euskara Departamentuaren aldeko txostena beharko da. Bertan egiaztatuko da laguntza emateko erabakian jarritako baldintzak bete direla.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean emango da banku-transferentzia bidez, zurutu eta gero, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

## **14.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA**

Ordenantza honetako eranskin bakoitzean zehazten diren agirien bidez zurutuko dira dirulaguntzak.

## **15.- PUBLIZITATEA**

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web orrian eta udaleko iragarki-oholean argitaratuko dira.

Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda HABEra (Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da, bertan duten euskara ikasten ari diren ikasleen datu basean dirulaguntza hauen berri jaso ahal izateko.

## **16.- DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA**

Ordenantza honetan edo dirulaguntza ematean ezarritako betebeharekoren bat bete ezean, dirulaguntza berriro aztertuko da eta, horren arabera, Zarauzko Udalak dirulaguntza baliogabetu edo gutxitu ahal izango du eta baita itzultzeko eskatu ere, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. artikuluan eta 52. eta hurrengo artikuluetan aurreikusten duen baldintzetan.

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta bereziki hurrengo kasu hauetan:



## ZARAUZKO UDALA

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutuz edo eskuratze hori galaraziko luketen baldintzak ezkutatuz.
  - b. Dirulaguntza emateko oinarrian dagoen helburua, jarduera, proiektua edo jokabidea osorik edo zati batean ez betetzea.
  - c. Jasotako dirulaguntza zuritzeko beharkizuna ez betetzea edo behar bezalako zuritzea ez aurkeztea, 10. eta 11. oinarrietan xedatutakoaren arabera eta, hala behar denetan, dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko ordenantza erregulatzaillean.
  - d. Dirulaguntza emateko ebazpenean xedatzen diren hedapen bitartekoak jartzeko beharkizuna ez betetzea.
  - e. Indarrean diren legeetan aurreikusitako finantza egiaztatze eta kontroleko jarduerari aurre egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu gordetze aldetik diren beharkizunak ez betetzea ere, horrek eragiten duenean ezintasun bat dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benetakotasuna eta erregulartasuna, edo beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso ote den egiaztatzeko.
  - f. Administrazioak onuradunei ezarritako beharkizunak ez betetzea, edota haiek, dirulaguntza ematerakoan, onartutako konpromisoak ez betetzea, dirulaguntza emateko oinarrian izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota jokabidea aintzat hartzeko moduari dagokionean edo eragiten dionean.
2. Emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edota bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional edo nazioartekoen dirulaguntza edota bestelako laguntzarekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua gainditzen duenean, emate ebazpena aldatu egingo da eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da garatutako jardueraren kostuz gaindiko diru kopurua.
- Bi herri erakunderen edo gehiagoren dirulaguntza emanak direnean, eta paragrafo honetan aipatzen duen soberakina gertatzen denean, ebazpena aldatzea edo, beharrezkoa bada, dirua itzultzea gauzatu da bakoitzak emandako kopuruaren araberrako hainbanaketa eginda.
3. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru sarreratzat hartuko dira.

### **17.- DIRUA ITZULTZERA BEHARTUAK**

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuruoi dagozkien berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.
2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.





## ZARAUZKO UDALA

3. Halaber, jardueri utzitako pertsona juridikoen lege ordezkariak dutenek, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

### **18.- ARAUDI OSAGARRIA**

Ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko EAO); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko EAO); eta Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.